

TUNIAZAREN ARABIKUNTZA



Habib Burgiba.

Irailaren 20: egun inportantea aurten Tunizian; irakaskuntza berriaren sarrera-eguna baitzen. Nazio-Heziketa-ren Ministro den Mohammed Mzali-k esan duenez «beren tuniziaritasunaz ongi jabeturik dauden belaun berriak eskolatu nahi ditugu». Eta, noski, tuniziaritasun hori arabearen indartzetik pasatzen da.

Frantses batekin ezkondua, frantses kuturaz oratua, politika-bideetan beti zuhur eta elkarrizketara emana, Habib Burgiba «biguina» izan da hizkuntzaren mailan ere. Tuniziaren bildea, beraz, arabikuntzaren sailean «moderatu» gisa hartu behar da; eta halakotzat daukate tuniziar zuzendariak: «arabisation progressive» dira hitz ofizialak.

Hain zuzen aurten beste urrats ban eman du Tuniziak, eta interesgarri zaigu zertan datzan jakitea.

Tunizian gaur 1.000.000 haur daude eskola-mailan; eta 193.000 lizeo-mailan. Unibertsitate-mailan 21.000 daude.

Eskola-mailan

Eskola arabez egiten da. Aurten arte, frantsesaren irakaskuntza («langue étrangère privilégiée» gisa) bigarren autean hasten zen. Aurtengo ikastaroan hirugarren urtean hasiko da; eta datorren urtean (1977-1978) laugarren urtean sartuko da.

Eskola, hiz batez, arabitarra da gero eta areago.

Lizeo-mailan

Lizeoa bietara egiten da: parte bat frantsesez, beste parte bat arabez.

Hizkuntzen zatiketa hau izango da aurre: 1) *arabez*, filosofia (arabitar filosofoei leku handiagoa emanez), geografia, kondaira (arabez aurten lau urtetan barrena). 2) *frantsesez*, zientzi-saila, eta teknika-saila.

Frantses, irakasleen Laguntza

Kolonialismoan bizi izan diren herri guztiek bezala, Tuniziak ez zuen askatasunaren egunean aski irakasleriu; eta frantses laguntzaileak («coopérants français» delakoak) onartu behar izan zituen.

Jakina: irakaskuntza arabitartu, eta tuniziar irakasleak ugaldtu ala, Laguntzaileen Kopurua txikituz doa:

1969 - 3.300 «coopérant»

1975 - 1.700 «coopérant»

1976 - 1.475 «coopérant»

«Tunizia herrialde musulmana eta arabitarra da. Zion berriki Mohammed Mzalik- eta bere nortasuna atxikitzea erabaki du». Esan, eta egin ere bai.



la bondad no se improvisa

La bondad se lleva dentro.

Se cultiva y se cuida.

Es fruto de un proceso que requiere tiempo.

La bondad de los productos SUCHARD tiene raíces muy hondas.

Ha acompañado a muchas generaciones, despertando siempre dulces recuerdos.

Hoy como ayer, en cualquiera de sus formas SUCHARD sigue respondiendo a una confianza que crece y crece con los años.

las delicias

Suchard